

Sorkuntza-egonaldiak gizarteratzeko eredu berriak bultzatzeari ekin diote DK, EKE eta DSS2016EUk *Lloba* eta *Ka dira* ekimenekin

- » Euskarazko sorkuntza ardatz hartuta lurraldetasun-harremanak garatzea eta euskal kultura gizarteratzea dute helburu bi ekimenek
- » Urrian antolatu dituzten Donostiako Kultur Etxeetako egonaldietan gauzatu dira bi ikuskizunak, eta azaroan eta abenduan aurkeztuko dira

Donostia 2016 Hiriburutza proiektuak, Donostia Kulturarekin eta Euskal Kultur Erakundearekin elkarlanean, kulturaren bidez gizarte-errealitatea eraldatzen lagundu nahi du; gaur egungo kultur politikak berriro formulatu nahi ditu, irekiagoak diren eredu berriak bilatzeko eta, sormenaren, elkarlanaren eta parte-hartzearen bultzada baliatuz askotariko ekitaldiak lantzeko. Kultur politikak berriz formulatzeko, ordea, ohiko egiteko moduak berri beharra dago.

Gaur aurkeztuko diren bi proposamenek bide horretan urrats xume baino eraginkorrak izan nahi dute. Nola?

- 1.- Sorkuntza prozesuak garatzeko lurraldeko ekipamenduak sortzaileen eskura jarriz, kasu honetan Donostiako Kultur Etxeak;
- 2.- Sorkuntza prozesu hauen inguruan gizarteratze dinamika berritzaileak antolatuz herritarren eta artisten arteko zubiak eraikitze aldera;
- 3.- Horretarako guztirako, hainbat eragileren eta erakunderen arteko elkarlan molde berriak aktibatuz.

Izan ere, gaur egungo kultur sistemaren ahuleziei aurre egiteko, gizartearen eta artista edo sortzaileen arteko kontratu berri baten beharra dago. Harreman berri baterako oinarriak jarri behar dira; elkar elikatzea eta elkar aberastea bideratuko duen egitura berri bat.

Donostia 2016ez gain, DKk eta EKEk ere beste bi alderdiren inguruan egin dute bat hemen:

Batetik, prozesuaren garrantzia balioan jartzea. Izan ere, ikusle eta sortzaile kritiko eta aktiboagoak lortzeko hezkuntza artistikoan aurrerapausoak eman behar dira, eta ildo horretan, prozesua bera ere ezagutzea oso baliagarria da. Bi ekimen hauek horren adibide garbiak dira. Bide horretatik, DSS2016EU proiektuak prozesuan sortzen diren harremanak, elkarlanerako aukerak, ezagutza eta esperientzia partekatua etorkizunerako utzi nahi ditu kultura- eta gizarte-ondare gisa.

Bestetik, hegoalde eta iparraldearen arteko elkar-ezagutza eta sortzaileen eta publikoaren mugikortasuna ahalbidetzea helburu, hiru erakunde hauek elkarlanean aritzeko erabaki irmoa hartu dute, hainbat hitzarmenen bidez adostua.

Testuingurua hori izanik, Donostia Kulturak, Euskal Kultur Elkarteak eta Donostia 2016k bat egin dute “Ka dira” eta “Loba” izeneko egitasmoetan.



***Ka dira* (Elirale konpainia)**

Sorkuntza eta kultur sozializazio egitasmoa
Egia Kultur Etxea

“Kadira” hitzak iparraldeko euskalkietan “aulkia” edo “eserlekua” esan nahi du, eta Elirale konpainiaren eskutik bi emakumek interpretaturiko pieza koreografiko bat izango da, Claude Boujon-en *Kadira urdina* izeneko ipuinean oinarritutakoa (Ikas argitaletxea euskarazko bertsioarentzat).

Haur txikiei zuzenduriko olerki munduko pieza honetan kadira/aulkia izango dute akzesorio nagusi, baina aldi berean tarteka euren gorputzak kadirak balira bezala erabiliko dituzte, eguneroko objektu horri bizitza emateko.



DONOSTIA 2016
SAN SEBASTIAN

donostiakultura.com



2005ean, Elirale Konpainiak publiko gaztearentzat esparrua ireki zuen Ka dira izeneko pieza koreografikoa sortuz. Aurélie Genoud eta Cyril Geeroms ziren garai hartan interpreteak. Geroztik Elirale Konpainiak publiko gaztearenganako eremua ikertu eta jorratu ditu, eta haurrentzako beste hiru pieza sortu ditu: Lodikroko, Otto eta Ninika. Gazteekiko eremu horretan eskarmentua duenez, Pantxika Telleria izan da Ka dira berriz idatzi duena eta, bide batez, Elirale konpainiak bitartez euskal dantzan duen mugimendu kalitatea baliatu du.

Sorkuntza-egitasmo honek helburu nagusi ditu euskarazko sorkuntzaren inguruan lurraldetasun anitzen arteko harremanak garatzea, Iparraldeko eta Hegoaldeko artisten eta lanen arteko benetako zirkulazioa ezartzea eta Baiona-Donostia Euskal Eurohiriaren inguruan kultur sare bat eratzea.

Lan hau osatzeko Elirale konpainiak hainbat eguneko bi egonaldi egin ditu Egia Kultur Etxean: bata irailaren 16tik 20ra eta bestea urriaren 14tik eta 16ra. Horrez gain, sortutako antzezlanaren aurkezpen ofiziala egin aurretik, hainbat tailer antolatu dituzte:

Egia Kultur Etxeko Dantza haur ikastaroko ikasleentzat lantegia:

Ostegunean (abenduak 12): 17:30-18:30. 5-6 urte bitartekoak

Egia Auzoko Trebeska dantza taldeko 8 urteko hurrekin bi tailer, abenduaren 9ko astean.

Saio nagusiaren aurreko lantegi irekia:

16:30–17:30 Egia Kultur Etxea


Sorkuntza-prozesu horren guztiaren emaitza izango den antzezlanaren urte amaieran aurkeztuko dute jendaurrean: abenduaren 26an, 18:00etan, Egia Kultur Etxean bertan.

Euskal Kultur Erakundeaz, Donostia Kulturaz, Donostia 2016ez gain, Hego Lapurdi Hiriguneak, OARAK (L'Office Artistique de la Région Aquitaine) eta Baxe Nafarroa herri-antzekiak ere parte hartu dute Elirale konpainiak ekoiztutako lan honetan. Sorkuntza-lan honen diru-sustatzaile honakook izan dira: Hego Lapurdi Hirigunea, Pyrénées-Atlantiques Kontseilu Orokorra, Akitania Eskualdeko Kontseilua, EKE eta Donostia Kultura.



DONOSTIA 2016
SAN SEBASTIAN

donostiakultura.com



Lloba (Moï Moï kolektiboa)

**Sorkuntza eta kultur sozializazio egitasmoa
Intxaurrondo Kultur Etxea**

Lloba euskal mitologia, eta zehazki akelarrearen erritua gai nagusizat hartzen duen diziplina anitzeko kultur proiektu garaikidea da. Ikuslea pertsonaia baten hasierako bidaian murgiltzen da eta, hainbat abenturen ostean, irudia goitik behera nola aldatzen duen ikus dezake.

Lloba ikuskizunak zenbait esparru artistiko hartzen ditu barne, tartean musika elektronikoa edota V Jing-a. Horiek guztiak uztartzen ditu, dantza tradizionaletan oinarriturik, istorio bat kontatzeko.

Moï Moï kolektiboko kide Txomin Ugartemendiak (Panda Valium) eta Ainhoa Datcharryk abiarazi dute sorkuntza-egitasmo hau, eta Baxter and Rojos United etxeko Nicolas Novionek gauzatuko ditu bideoak.

Lloba egitasmoa, Hogeita ekimenaren 2013ko irabazle izan zenez, ekimen horren balioak hartzen ditu oinarri. "Hogeita"-ren helburua zera da: gazteak laguntzea euskal kultura bere aniztasunean baloratuko duten proiektu berritzaileak asmatzen. Euskal Kultur Erakundea sustatzaile duen ekimen honek gazteen kultura dinamiken erakusle diren sorkuntza eta adierazpide artistiko eta trukaketa esparruak lagundu nahi ditu.



DONOSTIA 2016
SAN SEBASTIAN

donostiakultura.com



Esan bezala, Hogeita'ren aurtengo ekitaldian, "Gaurko musikak eta Irudia", *Lloba* egitasmoa hautatu zuten, honakook izanik epaimahaikideak: Euskal Kultur Erakundea eta Biarritzeko Atabal gela, eta Donostia 2016 Fundazioa, Donostia Kultura, Emankor Sarea (Bilbo), le Rocher de Palmer (Cenon) eta le Florida (Agen).

Egitasmoa 2013ko azaroaren 23an aurkeztuko da lehen aldiz Intxaurren Kultur Etxean. Ikuskizunak 40 minutu inguru irauten ditu eta bederatzi zatitan banatzen da.

Lan hau osatzeko Moï Moï kolektiboak astebeteko egonaldi bat egin zuen urriaren 14tik 18ra, Intxaurren Kultur Etxean. Horrez gain, sortutako ikuskizunaren aurkezpen ofiziala egin aurretik, Lauaizeta Ikastolako ikasleekin musika elektronikoaren inguruko tailer antolatuko da.